

2014an, beste 58 saltoki ireki dira

EROSKI-REN FRANKIZIA SUPERMERKATUEK %6 GEHIAGO SALDU DUTE

- **Frankizia sarea zabaldua, 316 lanpostu eratu dira 2014an**
- **Hemezortzi milioi euro baino gehiago inbertitu dira frankizietan**
- **EROSKIk programa aurrendari bat abiatu du sektorean, 'Zurekin frankizian' izeneko, frankiziei ematen zaien laguntza hobetzeko eta parte hartze bide berriak irekitzeko**
- **EROSKIk 148 frankizia gehiago ditu 2013-2016 Plan Estrategikoa martxan jarri zenetik**

Elorrio, 2015eko martxoaren 10a.- EROSKIren frankizia supermerkatuen sareak %6 gehiago saldu du 2014an, irekiera berriei esker eta kooperatibak Zurekin eredu komertziala frankizia sarera hedatu duelako.

EROSKIk 58 supermerkatu berri ireki ditu 2014an; aurreko urtean baino hamabi gehiago. Inaugurazio horiei esker, 316 lanpostu sortu ditu, eta 18 milioi euro baino gehiago inbertitu. Hala, frankizien sarea gehiago hedatu du; dagoeneko, 148 saltoki dira guztira, 2013an Plan Estrategikoari ekin zionetik; hala, Espainiako bigarren sarea da frankizia supermerkatuetan.

Honako toki hauetan zabaldu ditu 2014an 58 frankiziak: Andaluzian (10), Aragoian (3), Balearretan (12), Kantabrian (2), Katalunian (11), Galizian (2), Madrilen (1), Nafarroan (3) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (14).

EROSKIren Frankizien Saileko zuzendariak, Enrique Martinezek hauxe gogorazatu du: "EROSKIk frankizia eredu integrala eskaintzen du 200 eta 2.000 metro koadro arteko ekintzaile horientzat 1.500 biztanletik gorako herrietan". Kooperatibak frankizien bidez zabaltzearen alde egin du, 2016ra arteko Plan Estrategikoan datorren bezala. Ondoko urteetan, bereziki toki hauetan hedatuko da frankizien sarea: Andaluzian, Madrilen, Gaztela Mantxan, Katalunian, Extremaduran eta Levanten.

EROSKIk frankizia eredu integrala ematen du, EROSKI/city eta Caprabo — Kataluniarako— bereizgarriekin, bereizgarriaren eredu fisikoari eta komertzialari jarraitzen dioten 250 eta 500 metro koadro inguruko saltokietarako. Gainera, EROSKIk baditu bestelako aukerak ere —esaterako, Aliprox, Onda eta, Balear uharteetan, Aprop—, 250 metro koadroko lokaletarako. Kontsumitzaileek elikagaien eskaintza ia eksklusiboa daukate EROSKIren frankizia dendetan; tokiko janari freskoen sorta zabala, 3.000 produktu marka propioak, fabrikatzaileenak eta tokikoak, eta EROSKI Klub berriaren abantaila guztiak, Espainia guztian dagoeneko bi milioi bazkide dituenak. "*Zurekin' eredura aldatuta, asko indartu dira frankiziak,*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

eta balorazio baikorra helarazi digute hala frankiziek nola bezeroek; hain zuzen, saldu ere igarri diogu gehiago saldu dela", esan du Enrique Martinezek.

Frankizien zuzendariak esan du langabezia tasa handiak direla-eta ekintzaileek gero eta gehiago deitzen dutela supermerkatu bat martxan jartzeko. "Gure ingurunean, langabezia arazo nagusia den honetan, frankizia da lanpostuak sortzeko formularik arrakastatsuena. Geure autogestio kultura ongi ezkontzen da bere enpresa eratu nahi duen eta eskarmentu handiko profesionalen babesa eta konfiantzazko marka bat nahi dituen ekintzailearen filosofiarekin", azaldu du Martinezek.

Lotura handiagoa frankiziek

2014. urte bukaeran, EROSKI 'Zurekin frankizian' programa aurkeztu dio bere frankizia komunitateari. Ekimen aurrendaria da frankizien sektorean; haren bitartez, prestakuntza komertziala eskainiko die bere frankiziei, eta, orobat, zerbitzu eta abantaila pertsonalizatuak, produktuaren informazioa eta dendaren kudeaketa optimizatzeko tresnak.

"Frankiziek EROSKIrekin eta EROSKI frankiziek dugun konpromisoa aitortzea da kontua. Programa horrekin, balio handiagoa emango diogu frankiziek dugun harremanari, eta, hala, lotura handiagokoa izango da frankiziek dugun harreman eredu; horretarako, haien parte hartzea artikulatzeko bideak ezarriko ditugu geure arteko politika komertzialean", argitu du Martinezek.

Berrikuntza eta Merkataritza Frankiziarik Onenaren Espainiako Saria

EROSKIren formatu komertzialak berritzeko apustua frankizietara ere zabaltzen da. Bi proiektu berritzaile nabarmendu dira. Iaz, EROSKI lehen supermerkatua ireki zuen Espainiako unibertsitate campus batean, eta, hala, inoiz ez bezalako zerbitzua eskaini zuen. Bigarren proiektua behin-behinekoa izan da; BBK Live Musika jaialdian, supermerkatua jarri zuen. Frankizien arduradunarentzat, "bi proiektu oso enblematiko izan dira, eta horietan, gaur egungo kontsumitzailearen beharrei erantzuteko modu berriak zehaztu ditugu".

Bestalde, 2014an, EROSKI Merkataritza Frankiziarik Onenaren Espainiako saria jaso du, Frankiziaren Nazioarteko erakusketan. Aitormen horren bitartez, balioa ematen zaio sarituen berrikuntzari eta hedapenari.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es